



Gaztela eta Leon zentrua

**“Etorkizunean gazte jendea
gurera hurbiltzea nahiko genuke”**

Gaztela eta Leon kultur zentruak duela 25 urte hasi zuen bere ibilbidea Ermuan. Taberna, 1982ko uztailaren 22an ireki zuten eta egoitza osoaren inaugurazioa urte bereko urrian izan zen. Ordutik gaur egun arte, kultura eta kirolarekin zerikusia duten hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Urteurrena, “El Pendón” fanfarrea eta “Nuevo Mester de Juglaría” folk taldearen kontzertuarekin ospatuko dute.

-25 urte Ermuan Gaztela eta Leoneko kulturarekin zerikusia duten ekitaldiak antolatzen.

Egia esan, gure egitarau kulturala ez dago Gaztela eta Leoneko komunitateari zuzenduta bakarrik; izan ere, herriko beste zenbait ekitalditan hartzen dugu parte, esaterako Euskal Jaian, kirol ekitaldietan, gastronomia jardueretan... Gastronomia dela eta, maiz gure artean txantxetan esaten dugu, gure kultura euskal kulturaren integratuko bada, gastronomiarako dugun zaletasunagatik izango dela, gure txoko honek Gaztela eta Leoneko edozein elkarterekin ez duelako antzekotasunik.

-Zein da 25 urte hauetako zuen balorazioa?

Ona izan dela esango genuke, batez ere moldatzen jakin izan garelako. Hau da, hasieran berrikuntza zenez, indar handiz hasi ginen eta gerora inoiz galdu ez den korporatibismoari eustea lortu dugu. Kontuan hartu behar da baina, gure integrazioa hemen gure sorterrietan baino handiagoa dela eta denborarekin gero eta gehiago igartzen dela, zer esanik ez, gure seme-alaba edo hirugarren belaunaldien kasuan. Beraz, urteak aurrera egin ahala gure parte-hartzea handitu eta zabaldu egin dugu, ho-



rregatik gaur egun gureak ez diren beste zenbait jardueratan hartzen dugu parte eta zabalik gaude beste edozein ekitalditara.

-Zein da zuen kultur zentruaren lanaren helburua?

Estatutuetan, edozein gauza mugitu badaiteke ere, hasira batean gure helburua, Gaztela eta Leonen jatorria duten, zaleen eta bertan jaiotakoen artean elkarbizitza eta adiskidetasuna sustatzea zen. Horren erakusle, gure artean dene-tarik dugula: andaluz bat, zenbait galego... beti ere Gaztela eta Leonekin harre-

mana dutelako, senidetasu-na esaterako.

-Urtean zehar zein ekitaldi antolatzen duzue?

Ez gara kultur jardueretara mugatzen, gure egitaraua zabalagoa da. Datak aldatu daitezke, baina gutxi gora behera urtean zehar honako ekitaldi hauek burutzen ditugu: apirilean Gaztela eta Leoneko eguna, maiatzean Euskal Jaian talderen bat etortzen da elkartera bazkaltzera, ekainean "La Espiga" taldekoen afaria, kultur bidaia, hemengo futbol taldekoen afaria, uztailan Herrialdeen Eguna ospatzen dugu, Santixauetan goizeko txokolateta egin eta banatzen dugu, Santixauetan paella txapelketan hartzen dugu parte, irailean Gorabidekoekin afari-merienda egiten

dugu elkartean, urrian kultur astea antolatzen dugu hainbat ekitaldirekin eta urrian Memorial Jose Merino lasterketa antolatzen dugu, azaroan Nagusilan elkarteari omenaldia egiten diogu, tute txapelketa, mus txapelketa eta bietan parte hartzen dutenentzat afaria. Horrez gain, urtean zehar hainbat hitzaldi eta erakusketa antolatzen ditugu. Aurten uztailan gure 25. urteurrena ospatuko dugu.

-Gaur egun zenbat bazkide zarete?

50 bazkide, gizon eta emakumeak tartean.

-Bazkide guztiek hartzen dute parte antolatzen dituzuen jardueretan?

Guk nahiko genukeen baino gutxiago. Dena den, leku guztietan gertatzen den bezala, bazkide batzuen

"Gure integrazioa hemen gure sorterrian baino handiagoa da"

ILEAPAINDEGIA
Izaskun
 Goienkale, 9 (Plaza San Martín)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17 66 90
ILEAPAINDEGIA

Solozabal
 estankoa

 torrekua z/g
 Tel/Faxa. 943 17 07 33
 fax publikoa



PUB YOMY

**Zubiaurre
 kalearen
 bihotzean**

parte-hartzea handiagoa izaten da. Badira kalera ateratzen ez ditugun ekitaldi batzuk ere, hemen egiten direnak. Esaterako, emakume talde batek puntua egiten du asteen behin elkartean eta lan horiek GKE baten bitartez Perura bidaltzen dira.

-Jende gaztea hurbiltzen da zuen kultur zentrura?

Jende gaztearen parte-hartzea txikia da eta askotan hitz egiten dugu horri buruz gure artean. Dena dela, beste jarduera eta beste talde batzuetan gertatzen dena ikusten dugunean, bai Ermuan eta Ermutik kanpo ere, gurearen antzeko egoeran daudela konturatzen gara. Jende gazteak, dena eginda emanda ere, ez du parte hartzen, ez da hurbiltzen. Orain dela gutxi, bazkideen seme-alabei sartze-

ko aukera eskaini zitzaien eta 6 bat izan dira bazkide-tu direnak. Bestalde, gure zentruan folklore talde bat sortu zen, oso indartsu hasi zen, baina gaur egun ez du funtzionatzen.

-Zer nolako harremana duzue Ermuko gainerako kultur zentruarekin?

Oso harreman ona dugu eta urtean zehar antolatzen diren bi ekitaldi garrantzitsu elkarlanean egiten ditugu: Errege eguneko kabalgata eta Herrialdeen Eguna. Denboran atzera eginez gero, gogoratu beharra dago, gure ibilbidea hasi genuenean, Galiziako kultur zentrua bakarrik zegoela Ermuan eta nahiko ahulduta zegoen. Garai hartan gure bilerak taberna batean egiten genituen eta Galiziako kultur zentrukoek euren lokalak utzi zizkigu-

“Gainerako kultur zentruarekin harremana ona da, ekitaldiak elkarlanean egiteraino”

ten gure batzarrak egiteko. Hortik aurrera, beste zenbait kultur zentru sortu ziren Ermuan, baina gurea oso indartsu zegoen momentu hartan, gure jardueraz guztiak herri guztiari zabalik zeudelako. Izan ere, Errege eguneko kabalgata eta Herrialdeen Eguna egitearen ideia hemendik atzera zen eta gaur, egun kultur zentru ezberdinen artean egiten dugu, urte bakoitzean kutur etxe batek koordinazioa eta ardura nagusia hartuz. Hau da, kultur zentru bakoitzak ekitaldi antzeko bat egin beharrean guztien artean kalitatezko

zerbait egiteko helburuarekin elkartu ginen.

-Nola ospatu behar duzue 25. urteurrena?

Santixauetan sartuta bete-betean, uztailearen 22an goizez eta arratsaldean “El pendón” fanfarrearen kalejira izango da herriko bazter guztiak alaitzen. Eguerdian bazkaria egingo dugu eta ekitaldi nagusia, arratsaldeko 7etan Orbe Kardinalaren plazako kontzertua izango da, “Nuevo Mester de Juglaría” talde ospetsuarekin.

-Zeintzuk dira zuen erronkak aurrera begira?

Egun, herrian dagoen kultur blokearen baitan integratzea eta gure izaera mantenduz, bat gehiago izatea. Era berean, jende gaztea guregana hurbiltzea nahiko genuke, lekukoa euren esku gera dadin. Horregatik gogorazi nahi dugu, zentrua bera eta antolatzen ditugun ekitaldi guztiak adin guztietako herritarrei zabalik daudela, gurekin zerikusirik ez duten talde ezberdinen jardueretarako ere. Salbuespen bakarra, jarduera politiko eta erlijiosoak izanik. Zentrua sortu genuenean, oso argi geneukan gure ekitaldiak eta gure egoitza integrazio bide moduan erabili behar zirela, ghe-ttorik sortu gabe.

Alazne Aiestaran



Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

komunitateak
aseguruak
San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 PK. - Ermua

DROGETENITTURRI
EUSKAL BIRUSA

943 17 93 50
Elexoste

